

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Beaumont eta Dominguez kontseilariak SOS Navarran jarraitu dute entzierroko laguntza-dispositiboaren lana

Nafarroako Gobernuak, Gurutze Gorriak eta DYAK emandako osasun eta larrialdietako arreta Babes Zibileko Zerbitzutik koordinatzen da

Asteartea, 2016.eko uztailak 12

Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako kontseilari M^a Jose Beaumont kontseilariak eta Osasun Departamentuko kontseilari Fernando Dominguezek zuzenean jarraitu dute Babes Zibileko Zerbitzuaren egoitzatik, Sanferminetako entzierroetarako 112-SOS Navarrako Larrialdiak Kudeatzeko Zentroko koordinazio-operatiboaren lana.



Beaumont eta Dominguez kontseilariak entzierroa SOS-Navarrako egoitzatik ikusten, toki horretatik koordinatzen baita osasun eta larrialdietako arreta emateko dispositiboak.

Bi kontseilariak entzierroa telebistaz ikusi dute, honako hauekin batera: Barneko zuzendari nagusi Agustin Gastaminza; Osasun Departamentuko zuzendari nagusi Luis Gabilondo; Osasunbideko zuzendari kudeatzaile Oscar Moracho; Babes Zibileko Zerbitzuko zuzendari Felix Esparza eta laguntza-dispositiboko koordinatzaileak. Bisitaren helburua osasun eta larrialdietako profesionalak entzierroa normaltasun osoz joateko egiten duten lana babestea izan da.

Gogora ekarri behar da 112-SOS Navarraren Larrialdiak Kudeatzeko Zentroa arduratzen dela osasun-laguntza antolatzeaz eta zauritutako pertsonak osasun-zentroetara bideratzeaz, larrienak izan daitezten lehenak Nafarroako Ospitalegunera iristen, edo 112-SOS Navarrak erabakitzen duen zentrori. Horregatik, eta iaz ezarri zen moduan, hesien ondoan jadanik artatutako zauritu arinak larrienen ondoren eramaten dituzte osasun-zentroetara.

Entzierroetarako dispositibo berezia

Entzierroko zaurituak artatzeko dispositibo berezian, 112-SOS Navarrako Larrialdiak Kudeatzeko Zentrotik koordinatuta, Osasunbideko, Gurutze Gorriko eta DYAKo osasuneko eta laguntza emateko baliabideek nahiz langileek parte hartzen dute.

Hesien ondoan osasun arretako 9 postu daude, eta bertan

medikuak, erizainak eta sorosleak daude, eta sorosleak dituzten laguntzeko beste 8 puntu. Entzierroak 848,6 metro ditu, eta 53 metro bakoitzeko laguntza emateko gune bat dago.

Postu horiek jarriko dira: Santo Domingoko aldaparen hasieran (Hezkuntza Departamentuaren egoitza), Nafarroako museoko eskaileretan, Santiagoko plazan (udaletxearen atzealdea), San Saturninoko eskaileretan, udaletxean (2), Merkaderes kalean (2), Xabierko jaitsieran (2), Espoz eta Minako zeharbidean, Tejerian, Ahumadako Dukean, Labriteko jaitsieran, Amayan ("Telefonica" edo hegoaldeko kailejoia) eta Hemingway- en (iparraldeko kailejoian).

Gainera, medikalizatutako 16 anbulantzia izango ditu osasun-garraioko dispositiboak entzierroaren ibilbidean, haietako bi Gazteluko plazan egongo dira laguntza modura 112-SOS Navarra Larrialdiak Kudeatzeko Zentrotik bideratzeko osasun-garraio gehiagoren beharra dagoen ibilbideko puntura bidaltzeko.

Laguntza-dispositibo horretan arreta emateko izango dira, gutxienez: 9 mediku, 9 erizain, garraioko 21 teknikari, 47 sorosle, komunikazioko 9 langile eta postuko 8 koordinatzaile.

Aipatu den moduan, ibilbideko arreta Gurutze Gorri (78), DYA (30), eta Nafarroako Osasun Zerbitzuko-Osasunbideko osasun-baliabide eta -langileek ematen dute. Bertatik bertarako osasun-arreta ematen dute, eta zaurituak anbulantzian eramaten dituzte Nafarroako Ospitalegunera egokituko zaien sektoretik; hala, denbora errealean 112-SOS Navarrako Larrialdiak Kudeatzeko Zentroari informazioa ematen die artatutako pertsonen zauri eta lesioen gainean.

Argazki oina: Zutik, ezkerretetik eskuinera: Agustín Gastaminza; Félix Esparza; M^a José Beaumont kontseilaria; Óscar Moracho; Fernando Domínguez kontseilaria; Luis Gabilondo; Alberto Margallo, DYAKoa; eta Juanjo San Martín, Gurutze Gorrikoa. Eserita, ezkerretik eskuinera: Patxi Aso, DYAKoa eta Álvaro Cornago, Gurutze Gorrikoa.